

¡PELLO MARI OTAÑO IKASGELETARA!

Hauxe da Eguzki Art Zinemak Arakilgo Errotz Kontzejutik Sakanako bazter guztietara, baita Euskal Herri osora, zabaldu nahi dugun mezua hasi berri garen auzolan honekin. Pello Mari Otaño zizurkildar bertsolari-poeta handiaren Bizitza eta Egitza, Euskal Herriko hezkuntza geletan sar dadin ahalegintzen gara.

Euskal Herriko ikasle guztiengana iritsi dadila filma hau. Aztertu dezatela bere ibilbide emankorra eskola ordutan. Jabetu daitezela, bera Argentinan hil zeneko 111 urte sinboliko betetzen diren honetan, bai bertsozintzan, baita beste hainbat idazlanetan, sortzaile gisa eskeini zigun guztiaz. Jakin dezatela ere, adibidez, Pello Mari Otaño izan zela lehen euskara irakaslea Argentinan, hemen horrelakorik egiten ez zenean, eta bere eskuz idatzitako metodoa asmatu klaseak eman ahal izateko...edo, La Plata Unibertsitateko Euskarazko Katedrak bere izena daramala.

Bainan, Koldo Izagirre, idazle pasaitarrak dioen bezela: “Pedro Mari Otaño ez da bakarrik Poeta. Pedro Mari Otaño bere garaiko pertsonaia delako, buru-belarri murgildua bizimodua aurrera ateratzeko abenturan” ...baita politikaren abenturan, hitzaren abenturan, edota nongotasunaren abenturan, noski!

Gai guzti hoiiek jorratzen ditugu “Ombuaren Itzala” filman; eta hori gauzatzeko, filma grabatu ahal izateko, herritarren laguntza eskatuko dugu. Auzolana izanen da gure tresna filmak eskatzen dituen 750.000 euro biltzeko. Eta horretarako bi diru iturri erabiliko ditugu: alde batetik, 30.000 zine sarrera aurrez salduz; eta bestetik, Mezenazgo Kultural Legea indarrean jarritz.

Bainan, Auzolanaren lehen txanpa honetan, Lege honen bidez ekarpen gutxi egonen dira udako oporren aurretik, zeren deklarazio kanpaina apirilan hasten da, eta ez da amaitzen ekaina bukatu arte. Horrek konplikatzen du apur bat gure plangintza, zeren goizegia baita iturri horrek ekarpen handiak izateko sanfermin aurretik.

Data hoietan jada Argentinan egon beharko genduke grabatzen, garaiz iritis nahi badugu behintzat datozen Nafarroa Oinez, Kilometroak...eta antzekotan, irudi batzuk eskeini ahal izateko auzolanaren azken txanpa begira baita telebistara eramateko; irudi hoiak oso lagungarriak izango ditugu auzolanaren bigarren txanpa horretarako.

Horregatik, eta gauden momentuan, ezinbestekoa dugu sarreraren salmentari heltzea gogoz. Ahal dugun sarrera gehien saldu beharko ditugu ikasturtea amaitu aurretik. Erran bezela, diru iturri bakarra izango denez data hoietan, erronkan jarritako 30 mila hoietatik, gutxienez 25 mila saldu behar ditugu geratzen zaizkigun lau hilabete hauetan. Aurrekontu osoaren hirutik bat behar dugu Argentinako grabazioa egiteko; honek esan nahi du, 250.000 euro bildu behar ditugula sanferminak aurretik.

Bainan, itxaropentsu gaude, guztioi esker lortuko dugulako. Gure herritarrek maite dute Otaño bezelako pertsonaiak, eta bere itzala oraindik handia da gure gizartean. Datorren urtean ikasgeletan egonen da zuen ahalmenez. Hala izan bedi!

Sakanako bailaran oraingoz sarrerak salgai jarri ditugun lekuak hauexek dira:

- .- Altsasuko Iortia Kulturetxea
- .- Altsasuko AEK
- .- Iñigo Aritza Ikastola
- .- Andra Mari Ikastola
- .- Arakilgo Udala
- .- Irurtzungo Pikuberri Elkartea

Bestalde, Altsasu, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, eta Huarte-Arakilgo udaletxeak, eta herri hoietako eskoletako Apymen erantzunaren zain nago lehen kontaktuak egin ondoren. Pentsatzen det hauetako gehienak ere inplikatuko direla auzolanarekin. Azken finean, belaunaldi berri hoientzako egiten dugu filma hau; izan dezatela beren seme-alabek erraminta hau Otañorengana iristeko, bizirik mantentzen laguntzeko bere memoria.

Hitz hauen izenburuak dioen bezela, ikasgela guztietan sartu nahi dugu "Ombuaren Itzala" filma. Auzolanean inplikatzen diren Eskola, Instituto, edo Ikastola guztiek, jasoko dute filma bana ikasleei eskeintzeko. Horren truke, gurasoei gonbitea zabaltzen diogu sarreran banatzea eta saltzeari laguntzeko. Seme-alabek eskoletan doain, eta gurasoek auzolankide guztiekin batera, herriz-herri, estreinaldira etortzen garenean sarrerak aurrez erosiz.

Milesker, Guaixe ta Beleixeko ekipo guztiari zuen arretagatik.

Patxi Bisquert